

Txapela buruan eta ibili munduan

Bizirik irauteko eskuliburua

Irakasle ordezkoen araudia

2012ko irailaren 11ko eta 2013ko apirilaren 18ko EHAA

2019ko Urtarrila

- Ordezkoak mehatxupean
- Araudia: zerrendak, birbaremazioa...
- Esleipenak
- Finkapena eta egonkortasuna
- Baimenak, lizentziak, bajak...
- Estekak



Ordezkoak mehatxupean

Txosten honen helburu nagusia ordezkoen informazio praktikoa helaraztea da. Hala ere gure irizpide orokorrak aipatu nahi ditugu. Hemen jasota dauden hainbat eskubide langileen borrokari eta sindikatu batzuen presioari esker lortu dira. Joan den urtean, aurre-akordio bat sinatu genuen administrazioarekin, bertan zehazten diren neurriek gure ikastetxearen eta bertan lan egiten duten langileen onura ekarriko dutela sinesten dugu. Aurre-akordio horretan beti egin izan dugun bezala, egoera larriena pairatzen duten irakasleen egoera defendatzen saiatu ginen, ordezkoak alegia. Sinatutakoa guretzat abiapuntu soilak bada ere, aurrerantzean hori betearazten dela ziurtatzeko egingo dugu lan.

Murrizketak

Burtsaren porrotak murrizketa gogorak izan zituen ondorio. Bankuak salbatzeko hartutako neurriak guregan izan zuen eragin zuzena; gure lan baldintzak kaskartu egin ziren, gehiengoaren erosteko ahalmena jaitsi egin zen eta orokorrean gobernuak harturiko neurriak milaka biztanle pobrezia bideratu zituen. Hautu argia egin zuen gobernuak, nahiago izan zuen bankuetan inbertitu zerbitzu publikoetan baino. Administrazioak gure sektorean eginiko inbertsio ezak ondorio latzak izan ditu hezkuntzan, poliki-poliki gizartearen oinarri den zerbitzu publikoa desegiten doa.

Edonola, diotenez garai gorri haiek pasa dira eta ekonomiak hobera egiten du baina gure lan baldintzak bere horretan jargarraitzen dute. Badirudi bere garaian harturiko salbuespeneko neurriak behin betiko bilakatu direla eta eta gu lan baldintza kaskarrak izatera ohitu garela. Ondorioz gizartean dauden desorekak areagotu egin dira. Horregatik eta orain arte frogatu dugun bezala, lapurtu dizkiguten eskubideak berreskuratzeko lanean jarraituko dugu, eta gu lan baldintza kaskarrak izatera ohitu garela.

Hezkuntza gizartearen oinarria da, gure biztanleriaren kohesiorako tresna baliagarria. Horregatik hain zuzen ere, ezin dugu utzi merkantilismoak eta logika neoliberalak zanpatu dezaten. Onartezina da azken urteotan hezkuntzak bizi izan duen pribatizazio prozesua. Bada garaia administrazioak konpromiso tinkoa hartu dezan gure hezkuntzarekin eta eskola publikorako finantzaketa lege bat garatu dezan, horrela bakarrik ziurtatu ahal izango ditugu gure lan baldintzak.

Guk argi dugu gure lan baldintzen alde borrokatzean hezkuntza publikoaren kalitatearen alde ari garela, bi elementu hauek txanpon berdinen bi aurpegiak baitira. Horretaz gain, funtzio publikoan lan egiten dugunon baldintzak kaskarrak badira, zer ez ote zaie gertatuko merkatu basatiaren esku daudenei. Argi ere badirela.

Hori guztiagatik, bideak topatu beharko ditugu langile taldeak baita ikastetxeak egonkortzeko, azken finean langileen lanpostuak defendatuz gure hezkuntzaren alde egiten dugulako.

Ordezkapenen kudeaketa

Zerrendetan sartzeko bide zuzen eta gardenena urtero zerrendak antolatzea da, izena eman ahala jendea ordenatzea, eta birbaremazioan merituen arabera zerrendak berregitea. Merituak baloratzean ahalik eta irizpide objektiboenak erabili behar dira, sare publikoan egindako lana lehenetsiz.

LEParen emaitza zerrendetan sartzeko balio izateak LEPetara aurkezteko derrigortasuna ekar dezake, eta, denboraz, nota ere kontuan hartzea zerrendetan.

Postu batzuen puntuazio eta trataera bereziek atea zabal dezakete administrazioaren intereseko lanak lehenestera eta desberdintasunak areagotzera. Kontrola zorrotzu behar da arlo horretan.

Esleipen telematikoak esleipen prozesua erraztu eta oporrak disfrutatzen lagundu behar zuen. Baina aurrez berriz ere, abuztua esleipen hilabetea izan da – Beste modu batean egitea ezinezkoa dela esaten badute ere, gure eskaera argia da: ordezkoek ere oporrak izateko eskubidea dute!

Gainera, esleipen telematikoekin batera gardentasun eta kontrol eza etorri dira, baita erreklamatzeko epea laburtzea ere.

Kudeaketa arintzea ezinbestekoa da langileen lan baldintzak eta hezkuntza kalitatea bermatu nahi badugu.

Hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia

(2012ko irailaren 11ko EHAA)Ikastetxe Publikoetan lan egiteko,

Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetan kudeatzen dituzten hautagaien zerrendetan egon behar duzu.

Zerrenden osaketa eta kudeaketa

Zerrendetan sartzeko prozedurak

- Zerrendak irekitzeko deialdietan izena ematea.
- Birbarematze-prozesuan, baldin eta beste zerrenda batean bazaude eta behar den titulazioa baduzu, beste espezialitate baten kendu: beste espezialitate batean sartzea.
- Sinatutako aurre-akordioari esker 2020rako zerrenda guztiak irekita egongo dira.

Zerrendak

Birbaremazio prozesutik zerrenda orokorra ateratzen da, hori erabiltzen dute plazak esleitzeko. Horrez gain espezialitate bakoitzean zerrenda batzuk egon daitezke. Honako hauek dira, eta orden honetan erabiltzen dituzte (araudiaren 5. artikulua), zerrenda orokorra agortzen bada:

- LEP deialdian ireki diren zerrendetan apuntatu direnak.
- Baldintza guztiak beteta, ikasturtean zehar aldi batean irekitzean apuntatu direnak.
- Hizkuntza-eskakizuna bete gabeek osatua, aurreko ikasturteetan zehar irekitzean sortutakoa.
- Prestakuntza pedagogikoa ez dutenak.

Zerrenda orokorraren ordena

Espezialitate bakoitzeko zerrenda orokorra puntuen arabera ordenatzen da, irizpide hauek kontuan hartuz:

- Irakaskuntza arautuan egindako lana, publikoan eta pribatuan. Haurreskolak Partzuergoan egindako lana sartzeko aukera egongo da.
- Espediente akademikoaren nota.
- EPEa gainditzeagatik.
- Beste titulazioak.
- Lanbide Heziketako ikasgai praktikoetan espezialitateko lanbide esperientzia.
- Kontserbatorioetako espezialitate instrumentaletan, musika jarduera.

Birbaremazioa

Ordezkoen zerrendak urtero gaurkotzen dira, martxoa eta apirila artean.

Epe horretan irakasle.net-en bidez **hautagaiaren fitxa kontsultatu eta zure datuak zuzenak direla egiazta dezakezu**, puntu kopurua barne: sare publikoan egindako zerbitzuek bi hilabeteko puntu 1 gehitzen dute, zailtasun bereziko lanpostuetan salbu, non 2 puntu ematen diren (momentu honetan espetxeetako lanpostuak soilik). Haurreskolak Partzuergoan eta zentro pribatuetan egindako lanaldiak bi hilabeteko 0,33 puntu gehitzen du. Hezkuntza Sailaren menpe ez dauden ikastetxe publikoetan eginiko bi hilabeteko zerbitzuengatik 0,5 puntu gehitzen dira, baldin eta irakaskuntza arautuan bete badira. Formazio akademikoagatik ere puntuak ematen dituzte, beste gradu, doktore-titulua edo lizentziatuzteagatik puntu 1 eta diplomatura eta masterrengatik 0,5 puntu.

Zerrenda berezietatik orokorrera pasatzeko aukera dute birbaremazioan:

- EPE deialdia eta gero zerrendetan sartu direnek.
- Zerrenda berezietan daudenek, zerrenda orokorrean sartzeko eskakizun guztiak beteta (hizkuntza eskakizuna, prestakuntza pedagogikoa...).
- Zerrenda berezietan hizkuntza eskakizunik gabe daudenek, baldin eta lan egin badute.

Birbaremazioak **lan aukerak aldatzeko** ere balio du (zerrenda berezietan daudenek ezin dituzte ordezkapen aukerak aldatu): lurraldea(k), jardunaldi mota eta espezialitateak gehitu edo kendu...

Zerrendetako langileen balizko egoerak

- Lanean.
- Lanerako prest.
- Jarduera-eten iragankorreko egoera semeak/alabak 3 urte bete arte (“suspensión transitoria” delakoa).
- Aldi baterako baja (aurrekoan uko egiteko eskubidea), honako baldintzaren bat betez gero:
 - Gaixotasun arrunta.
 - Lan-istripuak edo lanbide-gaixotasunak eragindako baja.
 - Haurdunaldian arriskuan egotea edo arriskuko haurdunaldia izatea.
 - Amatasuna, adopzioa eta harrera.
 - Aitatasuna.
 - Odol edo ezkontza-ahaidetasuneko 2.mailara arteko ahaideen gaixotasun larria edo heriotza.
 - Norbera ezkontzea edo izatezko bikotea eratzea.
 - Askatasuna kentzea.
 - Hezkuntza administrazioek antolatutako ikastaroetan parte hartzea.
 - Ikasketa-beka baten onuradun izatea.
 - Ikasketa ofizialetan edo praktiketean aritzea.
 - Edozein motatako lan-kontratua izatea edo autonomo gisa altan egotea.
 - Atzerrian GKE (ONG) bati zerbitzuak ematen egotea.
 - Zerbitzu berezietan egotea.
 - Indarkeria-mota baten biktima izatea.
 - Ahalmeneko protokoloaren ebazpenaren zain egotea.

Aldi baterako baja egoera eragin duen arrazoiak sortu eta **10** eguneko epean **egiaztatu behar duzu**, plazarik eskaintzen ez badizute ere.

Aldi baterako baja egoeraren zergatia **amaitzen denean** (edo amaitu baino lehen, ahal bada) lanerako prestasuna ordezkartzari jakinarazi behar zaio, hori gertatu eta beranduenez **10** eguneko epean.

Uko egiteko arrazoiak

Eskaintza egiten den unean jakinarazi behar da.

- Aldi baterako bajan egoteko baldintza bat betetzea (egiaztatzeko 10 egun).
- Plaza jakin gutxi batzuei (berritzeguneak...) uko egin ahal zaie zerrenda espezifiko horretan ez bazaude. Bestalde, plaza horietara joan nahi izanez gero, unean duzun plazari uko egin diezaiokezu. (34. eta 40. art).
- Esleitu eta hurrengo 15 egunetan postua betetzeko gaitasun falta sumatzea (46. art., protokoloa).
- Aniztasun funtzional fisikoa duen pertsona batek lanpostuaren zereginak bete ezin izatea.

Zerrendetatik kanporatzea

Kanporatzeko arrazoiak izango dira honako hauek:

- Ordezkoak berak eskatzea.
- Karrerako funtzionarioa izendatuta izatea kidego horretan.
- Derrigorrezko erretirorako adina izatea (70 urte).
- Eskaintzari uko egitea onartutako arrazoirik eman gabe. Horrek espezialitate eta herrialde guztietatik desagertzea dakar.
- Uko egiteko arrazoiak ez alegatzea edo ez egiaztatzea, aginduak ezartzen dituen epe eta baldintzetan.
- Esleitutako lanpostura ez joatea.
- Diziplina-espedientea jasotzea, hutsegite larri edo oso larri batengatik.
- Eginkizun arruntak gauzatzeko gaitasun-falta nabaria izatea. (45. art).

Esleipenak

Kurtso hasierako esleipenak (abuztukoak)

Prozesua urtero irekiko da Langileria Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez, ekainaren bigarren hamabostaldian.

Hainbat berri emango dute Hezkuntza Sailaren web-orrian eta lurralde ordezkarietako iragarki-oholetan:

- Prozesuaren egutegia.
- Derrigorrean esleipen informatikoan parte hartzeko gutxieneko puntuazioa; puntuazio horretara heltzen ez direnek modu boluntarioan parte hartu ahal dute.

Esleipen informatikoari begira, lurralde historikoz eta lanaldi motaz aldatzeko aukera dago aurretik (uztailaren hasieran izaten da). Aldaketa hauek bakarrik esleipen telematikorako balioko dute.

Eskabidean, bostehun eskaera arte egin daitezke (zehatzak, lanpostu baterako, edo orokorrak, ezaugarri komun bat edo gehiago duten lanpostu multzo baterako).

Edozein kidego, espezialitate eta perfileko plazak eska daitezke eskabide orrian, horietarako habilitazioa izanez gero eta birbaremazioan aukeratu baduzu.

Esleipena puntuazioaren arabera egingo da.

Esleipen informatikoan parte hartu behar dutenei administrazioak plazak esleitu ahal dizkie ofizioz, haiek eskatu gabe, baldin eta norberak eskatutakoa lortu ez badu, edota ez badu parte hartu. Ofizioz jasotakoa derrigorrean hartu behar da.

Abuztuaren bukaeran behin-behineko eta behin betiko ebazpenak argitaratuko dira. Tartean erreklamazioak egiteko epea dago.

Administrazioak web-orrian argitaratuko ditu izendapenak. Hori, hartu duzun lanpostuaren egiaztatzea da.

Iraileko esleipenak. Irailaren lehenengo egunetan izango dira. Iraileko esleipenetan ere lurralde historikoz eta lanaldi motaz aldatzeko aukera dago aurretik (uztailan izaten da). Aldaketa hauek bakarrik esleipen telematikorako balioko dute.

Arazoak esleipenean: Ikasturte hasierako esleipenean edo ikastetxera heltzerakoan arazoren bat balego (plaza ez existitzea, plazaren definizioa aldatzea, etab.) lehenbailehen dagokion Lurralde Ordezkaritzarajo ezazu eta ordezkarikari sindikalari jakinarazi, arazolari berehalako irtenbidea bilatzen saiatzeko (hurrengo esleipenera joan...).

Errelebo kontratua:

- Jubilazio partzialaren ondorioz sortutakoa > 4 urteko iraupena

Ordezkoa

- Jardunaldiaren %50eko lana
- Hau hartzeko, langabezia egon behar da

Titularra

- Jardunaldiaren %50eko lana (noiz egin aukeratzeko eskubidea)

Zaintzagarriko plazak: Kontuz! Arrazoi honengatik lizentzia edo murrizketa hartzen dutenak edozein unetan buelta daitezke lanera, eta ordezkapenari amaiera eman. Gauza bera gertatzen da sindikatu etako liberazioekin.

Informazio gehiago: www.steilas.eus

Bitarteko langileen egonkortasun eta sarbide ereduaz

2018ko ekainaren 23an administrazioak aurkeztutako proposamena ez da STEILASek defendatzen duen egonkortasun eredu. Orain proposatu den egonkortasun eredu honek, urte luzez administrazio desberdinek behin-behineko langileen kontratazioan izandako iruzurrari, epaitegi desberdinetatik jarritako epaiei eta behin-behineko langileen tasa ikaragarriari erantzuna eman nahi dio nolabait.

2016ko urtarrilaren 19an helarazi genion azkenengoz administrazioari gure egonkortasun eredu, 2002ko lan hitzarmenean jasotako egonkortasunera eraman gintuena hain zuzen ere. Hau adierazita, administrazioak ekainaren 23an aurkeztutako "lurzoruari" ("lanpostu hutsak betetzen dituzten bitarteko funtzionarioak lanpostu horietan mantendu ahal izatea harik eta postua arauz bete edo funtzionario titularra itzultzen den arte") ekarpenak egin dizkiogu ahalik eta ezbehar gutxien sortzeko bitarteko langileen artean, bai eta desberdintasunak ekiditeko urte luzez aintzintasuna eta hizkuntza gaitasuna oinarri izan dituen zerrenden kudeaketan.

STEILAS prest egongo da langileen egonkortasuna ahalbidetuko duen eta ikastetxeentzat onena den egonkortasun sistema baten bidean lan egiteko.

Lehen Hezkuntzan egonkortasun prozedura 2020ko esleipenetan abian jartzea aurreikusita dago. Bigarren Hezkuntzan berriz, 2021eko esleipenetan ezartzekotan da egonkortasun prozedura. Bitartean lanean jarraituko dugu egonkortasun honen xehetasunak zehazteko.

Beraz, administrazioari eskatzen diogu, alde batetik, kontsolidaziorako kopuru bat gordetzea deialdian, eta bestetik EPE eredu birplanteatu dezala prozesu zilegi bat garatze aldera. Bestek beste, proba baztertzailak kenduz, esperientziari pisu gehiago eman ez eta orokorrean prozedura guztiari gardentasun gehiago eman.

STEILASek betiko sarbide bikoitzeko ereduari eutsi dio:

Administrazioari EBEP-eko 61.6 artikuluan sakontzeko eskatzen diogu, beharrezko egokitzapen legalak eginez enpleguaren kontsolidazioan.

"EBEP. Artículo, 61.6. Los sistemas selectivos de funcionarios de carrera serán los de oposición y concurso-oposición que deberán incluir, en todo caso, una o varias pruebas para determinar la capacidad de los aspirantes y establecer el orden de prelación. Sólo en virtud de ley podrá aplicarse, con carácter excepcional, el sistema de concurso que consistirá únicamente en la valoración de méritos".

Sarbide bikoitzaren eredu ikastetxe publikoetako ordezkoen zerrendak osatzen dituzten langileen interes eta eskubide ezberdinen arteko konfrontazioa ekiditeko baliagarria dela uste dugu.

Datozen planifikazio bileretan hauek izango dira **STEILAS**en lan ildoak sarbide eredu eta egonkortasunari dagokienez:

Ordezkapena bukatzerakoan lurralde ordezkartzan abisua eman ahalik eta lasterren. Telefonoz deitzeaz gain, faxa bidaltzea gomendatzen dizugu, libre zaudela esanez, eta kopia bat gordetzea. Errakuntzaren bat gertatzen denean, idatziz aurkezturiko dokumentua erantsirik daramaten erreklamazioak soilik onartuko dituzte eta.

Lan Jardunaldi murriztua. Aukera ona izan daiteke puntuak pilatzeko, zerbitzu aldiak jardunaldi osoan egindakoak bezala balio duelako, baina soldata eta Gizarte Segurantzako kotizazioa kontratuaren arabera izango dira (erdia edo herena, edo, Bigarren Hezkuntzan, ordu lektiboekiko proportzionala, betiere herenekoa gutxienez).

Adi! jardunaldi murriztuko ordezkapena zure bizilekutik (lurralde ordezkartzan jasota dagoen bizilekutik) 50 km baino urrutiago badago, lanpostuari uko egin diezaiokezu kanporatuta edo behera egin gabe.

Jardunaldi murriztuko lanpostu batean zaudenean langabeziako prestazioarekin zure soldata osatzeko aukera duzu, baldin eta alde zure alde eskubide hori sortu baduzu eta jarduna ez baduzu zure, borondatez, murriztu. SEPE-n neurri hau zelan aplikatuko litzazukeen galdetu.

Ikasturte Hasierako Ebazpenean jardunaldi murriztuetako eskola-orduen banaketaren inguruko iradokizunak datoz, irakasleen jardunaldia aipatzen den atalean. Begiratzea komeni da.

Uda kobratu. Ikasturtean zehar 165 egun (hilabete=30 egun) lan eginez gero, kontratu berria egingo dizute uztaila eta abuzturako, Gizarte Segurantzaren altan egongo zara, eta puntu bat lortuko duzu 60 egun horiengatik; baina egun gutxiago izan badira, askoz gutxiago kobratuko duzu udan:

Lan egindako egunak	Kobratzeko egunak	Lan egindako egunak	Kobratzeko egunak
5 arte	0	101 arte	8
17 arte	1	113 arte	9
29 arte	2	125 arte	10
41 arte	3	137 arte	11
53 arte	4	149 arte	12
65 arte	5	161 arte	13
77 arte	6	164 arte	14
89 arte	7	165tik gora	Uda

Uda osoa kobratzekotan kontratua indarrean izango duzu abuztuaren 31ra arte, beraz, epe horretan ez dago langabezia kobratzerik. Titularrak udan zehar bajaran jarraituz gero, kontratua ez da ekainaren 30ean eten egingo.

Hirurtekoak eta lehenengo seiurtekoa. Zerbitzuetako lehendabiziko hiru edo/eta sei urte metatu bezain pronto ordaindu diezazutela idatziz eskatu behar duzu lurralde ordezkartzan. Hezkuntza Sailak hitza eman zuen ondorengo hirurtekoak automatikoki ordaintzeko, baina halere erne ibili behar duzu. (Gogoratu: urte 1 = 360 egun).

Ordezkoak 4. eta 5. graduei (sexenioei) dagokien diru saria eskura dezakete epai baten ondorioz. Egoitzetan baditugu erreklamazio ereduak.

Langabezia kobratzea. Lanik gabe geratzen bazara edo/eta jardunaldi murriztuko lanpostua betetzen baduzu langabezi saria kobratzeko zenezake azken 6 urteetan 360 egun kotizatu badituzu. Kontuz epekin zeren eta kontratua amaitu ondoren 15 egunetako epea daukazu eskaera egiteko.

IRALE-n eta PREST GARA-n (prestakuntza kurtsoak, lehen GARATU). Parte hartzeko eskubidea daukazu baldin eta zerbitzu aktiboan bazaude. Lan Baldintzak arautzen dituen Hitzarmenean jasotzen dira ordezkotzako plaza kopuruak, Irakasleriaren Prestakuntzari dagozkion beste gai batzuekin batera. Ikastaro hauetan parte hartzeko baldintzen inguruko zehaztapenak deialdietan islatzen dira.

Baimenak, lizentziak, bajak eta egoera bereziak

Lizentzia eta baimen batzuk hartzeko ezinbestekoa da urte oso bat lanean beteta izatea, beste batzuk, berriz, edonork har ditzake. 2018ko maiatzaren 14ko aurre-akordioaren karrerako funtzionarioek dituzten hainbat lizentzia eta baimen bitartekoei zabaltzea adostu zen. Baten bat interesatzen bazaizu, eska iezaguzu informazioa.

Norberaren eginkizunetarako baimena

Urte betez etengabe lan egin ondoren eska daiteke. Egun horiek ere, zerbitzu egun bezala zenbatzen dira (puntuak pilatzeko, antzinasunerako, etab.) baina ez dira kobratzen. Gainera, egun horiei dagokien kotizazioaren zatia ordainduko dute zure izenean (langileari dagokiona), eta hurrengo nominan diru hori deskontatuko dizute.

Amatasuna

Lizentzia hau 18 astekoa da (baldin eta azken bost urtetan 6 hilabeteko kotizazioa bete baduzu); hauetatik 16 aste Gizarte Segurantzak ordaintzen ditu eta gainerako biak Eusko Jaurlaritzak. Amatasun lizentzia lanean zaudela hartzen eta bukatzen baduzu, primeran! 18 asteko lizentzia izango duzu. Zure kontratua lizentzia amaitu baino lehen bukatzen bada edota eten bat badu, egun bakarrekoa bada ere, Gizarte Segurantzako 16 asteak baino ez dituzu kobratuko, baina bai disfrutatu ahal izango dituzu gainontzeko 2 asteak.

Gaixotasun arrunta

Gaixorik egonda oporretako esleipenetan parte hartu ahal duzu, baina ezin duzu lanpostuaren jabetza sinatu. Hau da, ikastetxera joateko egunean alta egoeran egon behar duzu eta jabetza sinatu, bestela lanpostua galduko zenuke.

Ordezkapena betetzen ari zarela baja hartzen baduzu eta bitarte horretan titularra lanera bueltatzen bada, Gizarte Segurantzaren eskuetara pasatuko zara, zure alta hartu arte, eta paraoa kontsumituko duzu. Ez dizute lanposturik eskainiko.

Lan istripua, lanbide gaixotasuna, amatasun lizentzia edota haurdunaldi arriskutsua

- Ikasturte hasierako esleipenetan lanpostua har dezakezu, eta baimena bukatzean lanpostu horretara sar zaitzke lanpostua bakantea baldin bada.
- Lanean ez bazaude eta ordezkapen berri bat eskaintzen badizute, uko egin diezaiokezu eta ukorik egin ez bazenu bezala dei egingo zaizu. Kasu horretan eskainitako ordezkapen egunek, puntuak pilatzeko balio dute eta kontuan hartuko dira udako ordainketak jasotzeko. Antzinasunerako eta erretirorako ez dira kontuan hartuko ezta LEPerako ere.

- Alta hartu edo lizentzia bukatu ondoren lanerako prest zaudela jakinarazi behar zaio hamar eguneko epean lurralde ordezkarietzako bati. Hau egin ezean, zerrendetatik botako zaituzte.

Aldi baterako etetea (3 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko denboraldia)

- Edozein unetan eskatu ahal da, behin baino ez ume bakoitzeko, eta, gehienez, adingabeak hiru urte bete arte luzatuko da.
- Lanpostua gordeko da etetea hasten den ikasturtean, baldin eta etetea hastean, onuraduna ikasturte osoko lanpostu hutsa betetzen ari bada.
- Aldi baterako etete egoera ez da jarduneko zerbitzutzat hartzen, ez da kobratzen eta egoera horretan ematen den denbora ez da kontuan hartzen antzinasunerako, ezta LEPetarako ere.
- Hala ere, ordezkoen zerrenda berriro barematzerakoan kontuan izango da aldi baterako etete egoeran emandako denbora, lan egiteko prest egon izan balitz onuradunari egokituko litzaizkiokeen lanpostu hutsak edo ordezkapenak beteko zituzkeela aintzat hartuta.
- Onuradunak gutxienez 20 egun lehenago adierazi behar du, idatziz, lanera bueltatuko dela, seme-alabak hiru urte betetzean edo hori baino lehenago edozein unetan.

Oharra: informazio gehiagorako gurekin edota dagokizun lurralde ordezkariarekin jar zaitez harremanetan. Era egokian informatzea gomendatzen dizugu neurri honen inguruan nahaste ugari egon baita.

Heziketa zikloetako lanpostuak eta berariazkoak

Heziketa zikloetako lanpostuen profilak ziklo bakoitzaren curriculumaren (OCD) arabera egiten dira.

Horrela, zikloetako lanpostu bakoitzari errealizazioen zerrenda bat dagokio, irakatsi beharreko moduluen arabera. Lanpostuen profilak hautagaiari ezagutarazi egin behar zaizkio lanpostua esleitu baino lehen.

Ikastetxe batean arazoak sortzen direnerako protokolo bat garatu da (46. artikulua). Protokolo horren arabera ordezko batek uko egin ahal dio lanpostu bati edukiak emateko gai ikusten ez badu bere burua. Baita ere jaso egiten da zuzendaritzak haren gaitasuna zalantzatan jartzen duenean jarraitu beharreko prozedura.

Honek ez du ekarriko zerrenda horretatik kanporatua izatea. Gauza bera egin daiteke berariazko profilak zein zailtasun bereziak dituzten bestelako lanpostuekin.

Helburua, azken urteotan sorturiko arazo batzuk saihestea litzateke, baina erne ibili behar da gehiegikeriarik edota nagusikeriarik gerta ez dadin.

Argibide edo informazio gehiago behar izanez gero, deitu edo etorri sindikatura:

www.steilas.eus ☎ 944 100 298 ☎ 943 466 600 ☎ 945 141 104

Ordezkoen taldeak / foroak:

ordezkoak, DBH eta lanbide hezkuntzako ordezkoak, oposaketetara eta esleipenatarako informazioa...

Araudia: Zerrenden funtzionamendua, espezialitateak...

Oinarrizko araudia:

www.euskadi.net/bopv2/datos/2012/09/1204082e.pdf

www.euskadi.net/bopv2/datos/2004/06/0403148a.pdf

Ondorengo aldaketa partzialak:

www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-bopv2/eu/bopv2/datos/2013/04/1301903e.pdf

www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2458/eu/contenidos/informacion/die12/eu_2071/normativa_candi_susti_e.html

Ikasgaien kodeak:

www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2458/eu/contenidos/informacion/die17/eu_candidat/adjuntos/codigo_asignaturas.pdf

Zerrenden irekitze eta funtzionamenduari buruzko beste argibideak:

www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2458/eu/contenidos/informacion/die12/eu_2071/preguntas2_e.html

Plazen esleipenak

Ikasturte Hasierako Esleipenei buruzko ARAUDIA, ekainetik aurrera eskegi ohi dute, gure egoitzetan ere badago.

www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2458/eu/contenidos/informacion/die7/eu_2066/inicio_de_curso_e.html

Lan baldintza orokorrak

185/2010 DEKRETUA, EAEko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena. (EHAA 2010-10-16)

Ikastetxeen funtzionamendua

Ikasturte Hasierako EBAZPENA urtero gaurkotu eta Saileko web gunean eskegi egiten dute, ikastetxe guztietan ere eskuragarri dago.

201/2008 DEKRETUA, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoa. (EHAA 2008-12-16)

AJA (Antolakuntza eta Jarduera Araudia), ikastetxe bakoitzak berea du.

www.steilas.eus

Araba 📞 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia 📞 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa 📞 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa 📞 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus